

## POS-E53

*PD en Psicología: Individuo, Grupo, Organización y Cultura*

**Familia- Eskola koedukazioan 3 urteko haurren lexikoa estimulatzeko Poli esku-hartze programaren eraginkortasuna Leioako Udalerrian.**

Alaitz Etxaniz, Fernando Olabarrieta eta Xabier Isasi.

Euskal Herriko Unibertsitatea

"Guraso eta eskolaren arteko baterako hezkuntza (koedukazioa) sustatzeko programa baten inplementazioa. Haur Hezkuntzako 3 urteko haurren lexikoa ebaluatuz eta estimulatuz" ikerketa proiektuaren test-aurrean bilduriko datuen azterketa deskriptiboaren aurkezpenari dagokio ekarpen hau. Ikerketa proiektu honen xedea, familia-eskola koedukazioaren esparruan lexikoaren garapena estimulatzeko programa, Euskal Autonomi Erkidegoko errealitate sozial eta linguistikora egokitzean datza. Programa honek, "Parents partenaires de l'éducation. Experience pilote à l'école maternelle, Rapport finale de recherche" (Poutois, Desmet, & Lahaye, 2013) ikerketan du oinarria, zeinaren emaitzek bere efikazia frogatu duten. Aurrekari horietatik abiatuta programaren eraginkortasuna aztertu nahi da elkar trukaturiko tratamenduaren diseinua-espimentala aplikatuz, haur hezkuntzako 3 urteko haur, familia eta irakasleen parte hartzeaz. Lagina, Leioa eta Deba behe-goreneko Elgeta, Deba eta Mutriku udalerrietako 6 ikastetxe publikoetako 3 urteko gelako haurrek osatzen dute. Aldi berean, lagina hiru taldetan banatu da lurralde bakoitzean: kontrol taldea (programarik ez), A talde espimentala (programa eskolan) eta B talde espimentala (programa familian eta eskolan). Programa 2016-17 ikasturtean indarrean jarritz, aurre-test eta test osteko saioetan lexikoa eta koedukazioa ebaluatzeko tresnak aplikatuko dira (Peabody, "Haezi-Etxadi" eskala, "Poliren" hitz zerrenda eta "Koedukazioa" galdesorta). Test ostean B talde espimentaleko subjektuek, gainontzeko taldeekin konparatuz, lexiko eta koedukazio mailan altuagoa puntuatzea espero da. Hitz gakoak: Koedukazioa, Familia-Eskola, Gurasotasuna, Hezkuntza Programa, Lexikoaren garapena.